

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Ogasun eta Finantza Saila**

**Ogasun eta Finantzen foru-diputatuaren 2163/2020 FORU AGINDUA, abenduaren 14koa, zeinaren bidez BATUZ proiektuaren betebeharretatik salbuesteko baimena emateko prozedura arautzen baita.**

2020ko uztailaren 15eko 5/2020 Foru Arauaren bidez, ekonomia-jardueren etekinak kontrolatzeko sistema integral bat eta tributu-betebeharrak betetzen laguntzeko neurriak ezartzen dira. Horretarako, aldatu egin dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Araua eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zergei buruzko Foru Arau Orokorra. 5/2020 Foru Araua onartuta, Bizkaian aurrerapen kualitatibo bat egin da BATUZ izeneko estrategia integralaren inplementazioan, ekonomia-jarduerak egiten dituzten pertsona edo entitate guztien tributazioa kontrolatzeko, edozein delarik ere haien eragiketen tamaina edo bolumena. Halaber, aurrerapauso bat da zergadunei tributu-betebeharrak betetzen laguntzeko kudeaketa-eredu berriak ezartzeko bidean

Foru-arau horren artikuluetan, zenbait gai utzi ziren geroago erregelamendu bidez garatzeko, eta hala egin da Bizkaiko Foru Aldundiaren 2020ko irailaren 8ko 82/2020 Foru Dekretua onartuta. Foru-dekretu horren bidez, BATUZ proiektuaren tributu-betebeharrak garatzen dira, hauek aldatuta: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudia, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamendua, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Erregelamendua, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-betebehar formalak araupetu dituen Araudia, Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudia eta Fakturazio-betebeharrei buruzko Araudia.

Bai foru-arauan zein erregelamendu bidez garatzen duen foru-dekretuan, TicketBai sistema informatikoaren erabilerarekin lotutako betebehar batzuk edo guztiak betetzetik salbuesteko aukera ematen duten kasuak, zerga-administrazioaren baimena behar dutenak, ezartzen dira. Hala, foru-agindu honek osatu egiten du aipatutako xedapenetan salbuesteari dagokionez ezarritakoa, eta inguruabar jakin batzuk ematen direnean salbuespen hori baimentzeko prozedura ezartzen du.

Lehenik eta behin, foru-agindu honetan araututako prozedura noiz aplikatuko den zehazten da: betebehar horiek betetzea ezinezko egiten duten ohiz kanpoko inguruabar teknikoak ikusten direnean, eta, egoera espezifikoeetan oinarrituta, baldintza berezietan idazpen laburtuak egiteko baimena ematen denean.

Ondoren, salbuespena emateko, Ogasuneko Zuzendaritza Nagusian eskabidea aurkeztu beharko dela ezartzen da. Izapide hori Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikokoaren bidez egin beharko da; salbuespena ezartzeko zein kasu den identifikatu beharko da, eskabidearen oinarri diren egitateak azaldu beharko dira eta egitate horiek egiaztatzen dituzten dokumentuak aurkeztu beharko dira. Horrez gainera, aitortutakoaren zehaztasuna egiaztatzeko behar den informazio osagarria biltzeko eta behar diren jarduketara osagarriak egiteko ahalmena ematen zaio Arriskuak Analizatze eta Zerga Iruzuraren Aurkako Borroka Koordinatzeko Zerbitzuari.

Ebazteko eskumenari dagokionez, Ogasuneko zuzendari nagusiak eman behar du ebazpena, eta ezarri da ebazpena jakinarazteko epea 6 hilabetekoa izango dela, gehienez. Epe hori igaro eta ez bada ebazpen espresurik jakinarazi, eskabidea administrazio-isiltasunez ukatu dela ulertuko da.

Azkenik, xedapen gehigarrian, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauan aipatzen diren baldintza berezietan idazpen laburtuak egiteko baimenen indarraldia noiz amaituko den ezartzen da, foru-agindu honen ondorioetarako: 2022ko urtarrilaren 1ean.



Hala, bada, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.i) artikulua emandako ahalmena erabiliz, hau

XEDATZEN DUT:

### **1. artikulua.— Xedea**

Foru-agindu honen xedea da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 113 bis artikulua 1. apartatua eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 122 bis artikulua 1. apartatua ezarritako betebeharrak batzuk edo guztiak betetzetik salbuesteko baimena emateko prozedura arautzea, salbuespen hori bat datorrenean 113 bis artikulua horren 4. apartatua a) eta c) letretan eta 5. apartatua b) letran eta 122 bis artikulua horren 3. apartatua a) eta d) letretan eta 4. apartatua b) letran ezarritako kasuetakoren batekin.

### **2. artikulua.— Prozeduraren hasiera**

1. Foru-agindu honen 1. artikulua aipatutako betebeharrak betetzetik salbuesteko, betebeharrak bete behar dituzten pertsonak eta erakundeak eskabidea aurkeztu beharko dute Ogasuneko Zuzendaritza Nagusian.

Halaber, pertsona edo erakunde horien ordezkari gisa jarduten duen hirugarren batek aurkeztu ahal izango du eskabidea, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergen 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 57. artikulua ezarritakoarekin bat etorrira.

2. Eskabidea Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztuko da; horretarako prestatuko den formularioa bete beharko da, eta informazio hau eman:

- a) Salbuespena aplikatu nahi duen pertsona edo erakundearen identifikazio fiskal-eko zenbakia eta izen-abizenak edo sozietate-izena, osorik.
- b) Salbuespen-kasuaren identifikazioa, eta eskabidea eragin duten egitateen azalpen laburra.

3. Eskabidearekin batera, aurreko 2. apartatua b) letran aipatzen diren egitateak egiaztatzen dituen dokumentazioa aurkeztu beharko da.

### **3. artikulua.— Prozedura izapidetzea**

1. Eskabideak ez baditu betetzen aurreko artikulua 2. apartatua ezarritako baldintzak, pertsona edo erakunde eskatzaileari errekerimendua egingo zaio 10 eguneko epearen barruan, errekerimendua jakinarazi eta biharamunetik zenbatuta, akatsa zuzendu edo aginduzkoak diren dokumentuak aurkez ditzan, eta jakinaraziko zaio, eskatutakoa ezarritako epearen barruan betetzen ez bada, eskabidean atzera egindakotzat joko zaiola eta artxibatu egingo dela, beste izapidetik egin gabe.

Zuzentzeko errekerimenduari epearen barruan erantzuten bazaio, baina ikusitako akatsak ez badira zuzendutaz jotzen, pertsona edo erakunde eskatzaileari jakinaraziko zaio eskabidea ukatu egin dela hurrengo artikulua xedatutakoarekin bat etorrira.

2. Egoitza elektronikoaren bidez aurkeztutako eskabideak atzera botako dira dituzten akatsengatik hartzea bidezkoa ez dela ezartzen bada.

3. Egoitza elektronikoaren bidez jasotakoa behin-behinekoak izango da prozesatu arte. Aurkeztutako eskabideak aplikatu beharreko araudian ezarritako diseinua eta gainerako zehaztapenak betetzen ez dituztenean, pertsona edo erakunde eskatzaileari errekerimendua egingo zaio 10 eguneko epearen barruan akats horiek zuzen ditzan. Epea jakinarazpena egin eta biharamunetik aurrera hasiko da. Behin epe hori igarota, zerga-administrazioari datuak ezagutzea galarazten dioten akatsak mantentzen badira, eskaeran atzera egindakotzat joko zaio.

4. Zerga-administrazioak, Arriskuak Analizatzeko eta Zerga Iruzuraren Aurkako Borroka Koordinatzeko Zerbitzuaren bidez, kasu bakoitzean ezarritako betekizunak betetzen direla zainduko du, eta pertsona edo erakunde eskatzaileak aitortutakoaren zehaztasuna egiaztatzeko behar den informazio osagarria bildu ahal izango du eta behar diren jarduketara osagarriak egin ahal izango ditu.

**4. artikulua. — Prozeduraren ebazpena**

1. Foru-agindu honetan ezarritako prozedura ebazteko eskumena Ogasuneko zuzendari nagusiak du.
2. Salbuespena aplikatzeko baimena emateko ebazpenean zein baldintzatan ematen den zehaztuko da, eta baldintza horiek ez betetzeak baimena galtzea eragingo duela jakinaraziko da.
3. Ezezko ebazpena arrazoitu egin behar da, kontuan hartu diren egitateak eta zuzenbideko oinarriak labur adieraziz.
4. Ebazpen espresua jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, eskabidea aurkeztu eta hurrengo egunetik zenbatuta.  
Epe hori igaro eta ebazpen espresurik jakinarazi ez bada, interesdunak eskabidea ezetsizat jo ahal izango du, dagokion errekurtsioa aurkezteko.
5. Ebazpen espresuaren edo administrazio-isiltasunaren bidezko presuntziozko ebazpenaren aurka dagokion errekurtsioa aurkeztu ahal izango da.

**XEDAPEN GEHIGARRIA****Xedapen Gehigarria. — Emandako baimenen indar-galtzea**

Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 122 bis artikulua 3. apartatuaren a) letran eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren 113 bis artikulua 4. apartatuaren a) letran aipatzen diren baimenen indarraldia 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten den sozietateen gaineko zergaren edo pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren lehen zergaldian amaituko da.

**AMAIERAKO XEDAPENA****Amaierako Xedapen Bakarria. — Indarrean jartzea**

Foru-agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean, eta 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Bilbon, 2020ko abenduaren 14an.

Ogasun eta Finantzen foru diputatua,  
JOSÉ MARÍA IRUARRIZAGA ARTARAZ